

2017KO MARTXOAREN 13AN BATZORDE IRAUNKORRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxean Pleno aretoan egin du bilera 2017ko martxoaren 13an, 19:15etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Agirrezabala
ASTEASUKO UDALA (%2,49): Joseba Txapartegi Nieve
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika
IRURAKO UDALA (%2,73): Jose Ramon Epelde Irizar, Jesus M^a Alonso Insausti
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasketa
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

ETORRI EZ DIRENAK:

IBARRAKO UDALA (%6,95)
VILLABONAKO UDALA (%9,61)

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2016ko irailaren 5eko Batzorde Iraunkorraren Akta onartzea.**
- 2. Hondakinen bilketaren kudeaketa ereduak: Spora enpresak egindako azterketaren agiria.**
- 3. Galde-erreguak.**

Mankomunitatearen Idazkari den Jose Luis Unanue Ugaldek eman dio fede ekintzari, Maider Aguado Mendizabal Mankomunitateko kontuhartzailea eta Gemma Eceiza Mendiguren Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Ibarraiko ordezkaritza gutuna aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetoako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri honen ordezkaritza jarraian agertzen den moduan geratzen da:

IBARRAKO UDALA: Ordezkarria, Josu Amilibia Alsua.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2016ko irailaren 5eko Batzarren Akta onartzea.

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

2.Hondakinen bilketaren kudeaketa ereduak: Spora enpresak egindako azterketaren agiria.

Lehendakariak hartu du hitza gaia azaltzeko “Ute Tolosaldearekin izenpetutako kontratua, hiri hondakinen bilketa eta garraio zerbitzu publikoaren kudeaketari buruzkoa, aurten amaitzen da. Hori dela eta, joan zen urteko ekainaren 20ko Batzarrean hartu zen erabakiarekin bat, zabor-bilketa zerbitzuaren kontratu berria zehazteko funtsezko alderdien azterketa, Spora Ingurumen Zerbitzuak egitea onartu zen.

Batzarraren deialdiarekin, azterketa honen txostena bidali zaizue. Bertan azaltzen den moduan, kostuen azterketa hau egiteko, egun daukagun bilketa zerbitzua erabili da eredutzat, herri bakoitzak duen bilketa sistema kontutan hartuta, eta oraingo bilketa egutegiak eta maiztasunak mantenduz.

Pertsonal kostuak ateratzeko bi egoera ezberdin baloratu dira: alde batetik, kanpo kontratazioa eta, bestetik, zuzeneko kontratazioa. Kontratazio mota bakoitzean, bi egoera aurreikusi dira: lehenengo kasuan orain Ute-ak dituen langileen kostua hartzen da kontutan eta bigarrena, aldiz, sektorearen lan hitzarmenean dago oinarrituta. Hemen aipatzekoa zuzeneko kontratazioan oraingo estrukturari bi postu batu beharko zaizkiola, “Técnico de Soporte” eta “Dirección de Servicio” deiturikoak.

Inbertsioetan kamioi berriak, GPSak eta irakurketa sistemak sartu dira. Sei urtetan amortizatzeke kalkulatu dira eta %1,5-eko interesarekin. Baseari buruz esan behar da, gaur egun duen trataera berdina eman zaiola, hau da, alokairuarena.

Zergak aztertzerakoan desberdintasun garrantzitsu bat dago. Zuzeneko kontratazioan, egiten diren erosketa eta inbertsioei %21(BEZ-a) aplikatzen zaio. Aldiz, kanpo kontratazio bidez egingo balitzateke hondakinen bilketa, orduan %10 izango litzateke aplikatu beharrekoa.

Aztertutako bi kontratazio mota desberdin horien arteko diferentzia %5-ekoa da, zerbitzu zuzena merkeagoa izanik. Hala ere, bukaerako zenbateko horiek baxuagoak izan daitezkeela aurreikus daiteke. Batetik, kanpo kontratazioan, lizitazio garaian egon daitezkeen prezio jeitsieragatik eta, bestetik, kontratazio zuzenean, kamioen lizitazioan

egon daitezkeen prezio jeitsieraz gain, zerbitzu arduadunek kudeatzen duten moduaren arabera kostu horiek optimizatzea lortu dezaketelako.

Ondorioz, esan daiteke, diferentzia ekonomikoa ez dela hain handia horren arabera erabakitzeko zabor-bilketa zerbitzuaren modeloa.”

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Guk gure aldetik aztertu dugu Sporak bidalitako txostena. Hor agertzen den %5-eko diferentzi hori uste dugu ez litzakeela izango ere, iruditzen zaigu hori baino gutxiago izango dela. Beste aldetik, zerbitzu honek malgutasun handia eskatzen du, arazoren bat ikusten denean horiek zuzentzeko aldaketa batzuk egin behar dira eta azkarrak izan behar dute eta sistema honekin erantzuna askoz azkarragoa izan daiteke. Gure langileak baldin badira, administrazioaren kontra joatea zaila da eta uste dugu hor gaizki ibili gaitzkeela. Guk argi daukagu sistema subkontratatua izan behar duela.”

Alegiko Udaleko ordezkariak: “Kasu honetan kamioietaz ariko ginatke hitzegiten edo bilketa zerbitzuaz?”

Mankomunitateko Teknikariak: “Dena, esplotazio osoa izango litzake. Lan taldea eta baita ere behar diren inbertsioak eginda. Orain daukagun guztia.”

Alegiko Udaleko ordezkariak: “Basea eta dena sartuta?”

Mankomunitateko Teknikariak: “Ez, basean alokairua bakarrik dago sartuta. Gehiago baloratu da zerbitzu hori era zuzenean edo subkontratatuan egiteak zer diferentzi daukan. Baseari orain daukan trataera berdina eman zaio, alokairuarena.

Mankomunitateko Lehendakariak: “Zerbitzu subkontratatuan kamioia beraiek jartzen dute eta zerbitzu zuzenean guk erosten dugu. Hori da proposamenak aztertu duena, horrek ez du esan nahi ezin daitezkeela beste eszenario bat izan. Basearekin ere martxan jarri behar dugu gai hau eztabaidatzen dugun bitartean eta ikusi eskualdean pabiloi edo lurren bat dagoen alkilatze, erosteko edo eta guk obra egiteko. Modu desberdinak daude. Nik uste dut azterketa honetan garrantzitsuena kamioien eta batez ere langileen gaia dela”.

Asteasuko Udaleko ordezkariak: “Langileen lan baldintzak eta malgutasun hori, pliegoak edo Ope-a aterako bagenu, hor ahalko litzateke jarri hori ez? Berak esan duen zailtasuna erreala da?”

Mankomunitateko idazkariak: “Hor diferentziarik nabarmenena konbenioa izango litzateke. Zein konbenio daukan batek eta besteak, gainontzean Langileen Estatuto Legea berdina delako, bai subkontratarentzat eta bai Mankomunitatearentzat. Gaurkoan, Mankomunitateak langile publikoen lan hitzarmena, Udalhitz deiturikoa, erabiltzen du eta subkontratak garbiketa sektoreko hitzarmena eta gero enpresaren hitzarmena edukiko du. Azkenean, lan baldintzak konbenioak erregulatzen ditu eta gero OPE-ko baldintzak. Zein konbenio daukan bakoitzak horren arabera.”

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Noiz bukatzen da oraingo kontratua?”

Mankomunitateko Lehendakariak: “Irailean bukatzen da, baina urtebete luzatu daiteke. Zaila ikusten dut irailerako dena eginda edukitzea, bai bat izan edo bestea izan, batez ere basearenagatik.”

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Baina hala ere azkar, zeren Utearekin negoziatzea tokatu zaigunetan, askotan galtzea tokatu zaigu. Hori da malgutasun horren alde txarra eta orain komeni da gauzak bere lekuan jartzea. Batzuei komeni zaigu ahalik eta azkarren egitea eta ez degu ikusten urte beteko luzapena inondik inora.”

Mankomunitateko Lehendakariak: “Joango gara ikusten. Azkenean erabaki bat edo bestea hartu plazoak ere desberdinak izan daitezke.”

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Baina 6 hilabete horietan herri batzuk pagatu behar dute agian pagatu behar ez dutena. Herri bezala ari bagera pentsatzen gure kalkulua ez dagoela ondo eginda eta berriz erreparatzeko eskatzen, ezin didazu sei hilabete itxoiteko esan. Egin behar dena da ikusi nik arrazoia daukadan edo ez. Ez baldin badaukat ba ez daukat, baina hori egin behar da eta neretzako bestea baino askoz garrantzitsuagoa da.”

Alegiko Udaleko ordezkariak: “Erabakiren bat edo beste ados egon gintezke. Baina dudarik ez dago epe ertain luzera begira Mankomunitateak ze eredu eduki behar duen erabaki garrantzitsua dela eta legealdi honetako Tolosaldeko Mankomunitatearen erabaki garrantzitsuena ildo hau dela.”

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Guk egina daukagu erreflezioa eta uste dut gure aurretik beste batzuk ere egin dutela eta emaitza berdinerantz iritxi garela. Emaitzak dio, zerbitzua malgua izan behar duenean, zoritxarrez kanpora atera behar dela.”

Alegiko Udaleko ordezkariak: “Kasu konkretu honetan, nik beste buelta bat emango nioke eta ez nuke efizienteagoa izango den eredu bat, gehiago aztertu gabe, baztertuko.”

Lehendakariak adierazi du batzarkideei azaldutako txosten hau udal guztietara bidaliko dela, udal taldeekin hausnartzeko eta gero hurrengo Batzarrean komentatzeko.

3. Galde-erreguak

Gai-zerrendan barneratu ez diren honako gai hauek aipatu dira:

3.1. Zerbitzu juridikoei buruzko azalpena

Lehendakariak hartu du hitza eta aurreko Batzarrean Tolosako Udaleko ordezkariak eginiko eskaerari erantzunez, Mankomunitateak zerbitzu juridikoetan izandako gastuei buruzko informazioarena, ondorengo taula hau azaldu du.

	TXOSTEN JURIDIKOA	HELEGITEA PRESTATZEA (ABOKATUA)	HELEGITEA PRESTATZEA (EKONOMILARIA)	ABOKATUAREN MINUTAK	PROKURADOREA	PERIZIALEAN PARTE HARTZEA (EKONOMILARIA)		
GHK HARTUTAKO ERABAKIEN AURKAKO NEURRI POSIBLEEI BURUZKO TXOSTEN JURIDIKOA	2.420							
GHK MARTXOAREN 23ko BILKURAREN DEIALDIAREN URGENTZAREN AURKAKO HELEGITEA		3.630		2.541	500			
GHK MAIATZAREN 6ko BILKURAREN DEIALDIAREN URGENTZAREN AURKAKO HELEGITEA				2.541	500		Falta de legitimidad	Bilbora apelatua
GHK MAIATZAREN 6ko BILKURAREN DEIALDIAREN URGENTZAREN AURKAKO HELEGITEA (Derechos fundamentales - Ordezkarriak)				2.541	500		Falta de legitimidad	Bilbora apelatua
ERREKURTSO BEREZIA PRESTATZEKO ZERBITZUA, - PLIEGOEN KONTRA		10.980					Falta de legitimidad	Pliegon kontarko demanda jarrita
PLIEGOEN KONTRAKO HELEGITEA				4.840	2.541	500	2.420	
BIDERAGARRITASUN AZTERKETARI HELEGITEA				2.541	500			
AURREPROIETUARI HELEGITEA				2.541	500			
2017KO TARIFEI HELEGITEA				1.500	500			

2.420 14.610 4.840 16.746 3.500 2.420 **44.536**

3.2. Organikoaren karakterizazioen emaitzak

Lehendakariak adierazi du Ghk-tik komunikatu bat iritxi dela. Bertan esaten duenaren arabera, abenduan organikoaren karakterizazio batzuk egin ziren eta lortutako emaitzak ez ziren onak izan. Arazo hau konpontzeko, Mankomunitateari ahalik eta lasterren behar diren neurriak hartzeko eskatzen zaio, bestela Ghk-ak neurriak hartuko ditu, Gipuzkoako kontsorzioaren araudiak dioena aplikatuz.

Araudi honen arabera, %5 da onartzen den inpropioen topea. Hortik gora errefusa bezala tratatuko da. Momenturen batean, Ghk-ak hori errefusa dela esaten badu eta araudia aplikatu, bi gauza gertatuko dira. Batetik, garestiago ordaindu beharko dugu eta hori, fiskalitate guztia bezala, herri bakoitzak, bere kostua, bere gain hartu beharko du eta, bestetik, herri batzuen gaikako bilketa tasa asko aldatuko litzateke, eta horren arabera Mankomunitatekoa ere bai.

Gai honi jarraipena egin behar zaio Mankomunitatearen aldetik. Apirilean, Anoeta, Ibarra eta Zizurkilen bilketa sistema aldatuko da. Hori dela eta, aurrerago, maiatzean edo ekainean beste karakterizazio batzuk egin beharko lirarteke, batetik, jakiteko nola doazen hiru herri horiek aldatetarekin eta, bestetik, ikusteko gainontzeko herri guztietan nola dagoen gaia.

20:25etan Berastegiko Udaleko ordezkaria atera egin da.

3.3. Zabor bilketa sistemaren aldaketa Anoeta, Ibarra eta Zizurkilen

Mankomunitateko Teknikariak adierazi du “Zabor bilketa sistemaren aldaketa Ibarren apirilaren bukaeran egingo da eta Anoeta eta Zizurkilen, hasiera batean behintzat, apirilaren 3-an.”

3.4. Transferentzia planta

Lehendakariak hartu du hitza eta honela azaldu du “Sasietako zabortegira zaborra garraiatzea eta han deskargatzea zenbat kostatzen zitzaigun jakiteko koste azterketa bat egin zen. Txosten hori Ghk-ri bidali genion, transferentzia planta bat egiteko edo eta kostu horiek Mankomunitateari ordaintzeko eskatuz.”

Jarraian Mankomunitateko Teknikariak hartu du hitza eta honela azaldu du “Ghk-tik adierazi digute, Gipuzkoan, orain gaikako bilketa hainbeste igo denez, transferentzia plantak ez direla hainbeste justifikatzen. Alde batetik, errefusa kopurua gutxiagotu egin da eta, bestalde, Tolosaldearen kasuan, gure errefusaren azpiegiturak distantzia txiki batera egon daitezkeela, 25 edo 30 kilometrotara. Kopuru hori beti mugakoa kontsideratu da planta egiteko garaian. Esan digute planta egitea ez dela bideragarria ez dutelako beharrezkoa ikusten. Hala ere begiratu dezaketela Mankomunitateak bere esparrutik kanpo

egiten duen garraio horren kostea zenbatekoa den, pertsonal gastua eta kamioiaren gastua, nolabait adostasun batera iriste aldera.”

Mankomunitateko Lehendakariak: “Batzorderen bat gehiago egingo dugu etorkizunean eta hor azalduko dugu beraien erantzuna.”

3.5. Ferrovial enpresaren 2017 ekitaldirako tarifen onarpena

Mankomunitateko Teknikariak hartu du hitza eta honela azaldu du “Mankomunitatean, garbigunetan jasotzen ditugun hondakinak, obra hondakinak, birziklatu ezin daitezkeenak eta industrigunetan jasotzen dugun errefusa, Mutiloako zabortegira eramaten dira, dagokion tratamendua emateko. Zabortegi hau Ferrovial enpresak kudeatzen du, eta aurten aplikatzen dizkiguten tarifa horien onarpena egitea eskatu digute. Joan den urteko baldintza ekonomiko berdinak mantendu dituzte eta ondorengo taula honetan adierazten dira:

ZABOR MOTA	KOSTE ZERBITZUA
OBRA HONDAKINA	20,50 €/Tn (bez aparte)
PLASTIKO NAHASTUA	27,00 €/Tn (bez aparte)
PLASTIKO INDUSTRIALA	26,92 €/Tn (bez aparte)
ERREFUSA INDUSTRIALA	27,00 €/Tn (bez aparte)

Ondoren, agertutako guztiak ados daudenez emandako azalpenekin, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.-2017 ekitaldirako Ferrovial enpresak aurkezturiko tarifak onartzea.

BIGARRENA.-Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari eta Ferrovial enpresari ematea.

20:30etan Larraulgo Udaleko ordezkaria atera egin da.

3.5. Spora enpresak eginiko autokonpostaren bideoa

2012-tik 2016-ra bitartean Tolosaldeko Mankomunitateak abian jarritako konpostaje kanpaina ezberbinak kontutan harturik, Spora enpresak bideo bat prestatu du.

Lehendakariak bideoa jarri du batzarkideek ikus ahal izateko, baina arazo tekniko batzuk izan dira eta azkenean ez da bideoa ikusi.

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Nik nire iritzia eman nahi nuen. Nire iritzia zen, konpostajeak, auto konpostajeak eta auzo konpostajeak ba duela gauza on bat, didaktikoa dela. Hortik aurrera, Tolosa bezalako herri batean adibidez, ez dauka beste funtsarik. Edukiontzi marroiak baldin badituzu eta ondo funtzionatzen badute, ez dauka zentzurik hori kudeatzen dirua gastatzea. Hori da nik adierazi nahi nuena eta hori ez da azaltzen. Beste aldetik, bideoan 4 pertsona agertzen dira. Oresa, Berastegi, Aduna eta Andoiango alkateak. Ematen du, egia da aurreiritzia dela, baina iruditzen zait, lau pertsona horiek asmatu dutela birziklatzea. Lau pertsona horiengatik ez balitz, hemen inork ez zuen ezer egiten.”

20:40etan Berrobiko Udaleko ordezkaria atera egin da.

Mankomunitateko Lehendakariak: “Bideo honetan lau urteko lanketa agertzen da gutxi gorabehera. 4 urte horietan Mankomunitatearen arduradunak hiru pertsona izan dira. Pertsona horiek, Eneko, Amaia eta ni, Mankomunitateko arduradun bezala, ateratzen gara. Gainera, herri txikietakoak garenez, gure herriei buruz ere zerbait hitz egiten dugu. Tolosako Udaleko ordezkaria ere ateratzen da, Tolosa ere ateratzea ondo dagoelako eta Mankomunitateko Lehendakariordea delako orain eta bere ikuspuntua ematen du. Bukaeran hitz egiten duzunean argi eta garbi ateratzen da konpostajeko bideo batean zure 5. edukiontziaren aldeko hautoa.”

Mankomunitateko Lehendakariak jakinarazi du, konpostajearen bideo hau, batzarkideei bidaliko zaiela ikusteko eta baloratzeko. Horrela, hurrengo batzarrean beraien iritzia komentatuko dira.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko 20:55 direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA